


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**SECUNDINO ESNAOLA 21**

Frantzisko Urkola, 1934.

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, Urkolak Galtzada Nagusia 16an egin proiektu beraren parte dena. Profil berdina du, beheko solairua eta solairuarte, jatorrizko goiko lau solairuak eta bosgarrena, berriz, hasierako atiko atzeraemanaren itxiturarekin aldatua. Oin hori pilare galeria batez itxi zuten, baita begiratokiaren gainean ere, erlaitz berri bat jarrita. Gorago beste atiko bat altxatu zuten, atzeraemana hau ere, seigarren solairuan. Eraikin honetan bereizi egiten dira, halaber, basamentuko materialak, goiko horma-atal lauetakoak, eta emokaduraz amaitutako begiratokietakoak. Basamentuko baoek jatorrizko ordenari eusten diote, nahiz bao barruetan aldaketa batzuk izan dituzten. Zabalguneko konposizio eskema berari segitu zioten, harriaren materialtasunik gabe eta Grosen dagoeneko beste ale bikain batzuk emanak zituen arrazionalismotik hartutako forma lauekin.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: beheko solairuko aldaketak eta seigarren solairuko atikoa.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.